



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko irailaren 19a

105. ZK.

### A U R K I B I D E A

F SAILA:

**Galderak:**

- 11-24/PES-00310. Galdera, 2023ko ekitaldian 100 milioi euro ordaintzea eskatu zaion enpresari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-24/PES-00311. Galdera, iktusa artatzeko Nafarroako Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-24/PES-00312. Galdera, Viana 1-eko lurzati-berrantolamenduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-24/PES-00313. Galdera, Foruzaingoak egindako arma eta lehergai konfiskatzeei eta salaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-24/PES-00314. Galdera, Segurtasun Batzordea foruzainen kopurua handitze aldera deitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-24/PES-00315. Galdera, 2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta anitz baterako programa-akordioko 6. puntuari buruzkoa (6. puntua: "Azterlan bat egitea bizitegiak publikatzeko agenda bat ezartze aldera, desgaitasuna dutenei lehentasuna emanen diena"). Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-24/PES-00316. Galdera, trafikoko isunak online ordaintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-24/PES-00317. Galdera, joko-aretoak ixteko ordutegia 3 orduz murrizteari eta, aldiz, erregioko bingoak ixtekoa 30 minutuz soilik murrizteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-24/PES-00318. Galdera, Jokoei eta Apustuei buruzko Erregelamenduak ukitutako enpresetan enplegua suntsitzeari eta lan-baldintzak aldatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-24/PES-00319. Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak gogoan darabilen BMB motako makinak joko-aretoetan ere para daitezen baimentzea. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-24/PES-00320. Galdera, bingoetan dauden B motako makinak joko-aretoak ixteko orduaz haratago funtzionatzen jarraitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-24/PES-00321. Galdera, ekografia urgenteetarako irispideari begira merkatuko alde zurretiko kontsulta egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

- 11-24/PES-00322. Galdera, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera bidegabeki kobratutakoa itzultzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-24/PES-00323. Galdera, bazterkeria handiko egoeran dauden pertsonentzako egoitza-tokiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-24/PES-00324. Galdera, Iruñean egoitza-tokiak handitzeko aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-24/PES-00325. Galdera, ibilgailu elektrikoak eta hibrido entxufagarriak erosteko laguntzak abian jaritzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-24/PES-00326. Galdera, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean aurreikusten diren zerbitzu-kartei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-24/PES-00327. Galdera, Europako Next Generation SEM funtsek 2024ko maiatzaren amaieran izandako betetze-mailari buruzko datuak argitaratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-24/PES-00310. Galdera, 2023ko ekitaldian 100 milioi euro ordaintzea eskatu zaion enpresari buruzkoa****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak 2023ko ekitaldian 100 milioi euro ordaintzea eskatu zaion enpresari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 1124/PES-310 galdera egin du –Nafarroako Parlamentuko 202404807 irteera-zenbakiarekin erregistratua 2024ko ekainaren 17an–, idatziz erantzun dakion, 2023ko ekitaldian 100 milioi euro ordaintzea eskatu zaion enpresari buruz. Hona hemen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

1. Hasierako gaia: foru parlamentariak galdera-idazkian azalduetako argudioa

Galderen egile den foru parlamentari jaunak egoki jo du, bere eskaera arrazoitze aldera, Auzitegi Gorenaren 2021eko otsailaren 24ko Epaia aipatzea eta hura partzialki transkribatzea. Izan ere, foru parlamentariaren iritziz, oso eztabaidagarria den gai bat argitzen da epai horretan; honako hau, hain zuzen ere: datu fiskalen diskrezio-edo konfidentzialtasun-araubideak, Tributuei buruzko Lege Orokorraren 95. artikuluan aurreikusten denak, ez duela eragozten estatuko Gardentasunari buruzko 19/2013 Legea aplikatzea, eta beraz, ezta Gardentasunari, informazio publiko eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiztaren 17ko 5/2018 Foru Legea ere.

Hortik abiatuta, ulertzen du ez dagoela inolako arazorik herritarren intimitateari eragiten ez dion zerga-informazioa emateko, eta bere ustez halako eraginik ez duten zenbait egoera aipatze ditu adibide modura.

Orobat, irizten du garrantzitsua dela honako hau aipatzea: “gastu publikoei eusten laguntzeko zergak ordaintzeko konstituzio-betebeharra daukagunez pertsona guztiok, bidezkoa da informazioa lortzea Administrazioak zergen kudeaketan egiten duen jarduerari buruz”.

Ohar horiek kontuan hartuta, eta egindako bi galderei erantzun argia eta zehatza emate aldera, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua eskatzen duenari jarraikiz, idazki parlamentarioaren eta hura sorrarazi zuen gaiaren oinarri den epaia aztertu beharrean gaude.

2. Otsailaren 24ko 257/2021 AGEN landutako gaia.

Herritar batek 2017an bere Udalari egindako informazio-eskaera bat da epaiaren jatorria, zeinetan honako hau eskatzen baitzuen:

“Udalerri honetan Ondasun Higiezin Zerga (OHZ) ordaintzetik salbuetsita dauden ondasun higiezin zerranda (hiri-lurrekoak eta landa-lurrekoak), honako hauek adierazita: higiezin helbideak, salbuetsitako zenbatekoa eta salbuetsita egoteko legezko arrazoia eta higiezin titularrak (horiek pertsona fisikoak direnean izan ezik, Datu Pertsonalak Babesteko Legeari jarraikiz; izan ere, arau horrek pertsona fisikoak soilik babesten ditu, eta inoiz ere ez entitate juridikoak, horiek publikoak ala pribatuak izan)”.

Eskaera horri dagokionez, interesgarria da azpimarratzea eskatzaileak berak kanpoan utzi zuela higiezin titulartasunaren datua, horiek pertsona fisiko diren partikularrenak direnean, ulertzen baitu datu-babesari buruzko legediak ez

duela informazio zehatz hori lortzeko modurik ematen.

Udalak ez zion eskaerari erantzun, eta beraz, eskatutako informazioa ukatu zelakoan, herritarrak erreklamazio bat aurkeztu zion Andaluziako Gardentasunaren eta Datu Babesaren Kontseiluari.

Behin prozedura izapidetuta, entitateak partzialki onetsi zuen herritarrak aurkeztutako erreklamazioa, eta xedatu zuen Udalak herritarrari helarazi behar ziola OHZ ordaintzetik salbuetsita zeuden ondasun higiezin zerranda (hiri-lurrekoak eta landa-lurrekoak), adierazita higiezin helbideak, salbuetsitako zenbatekoa eta salbuetsita egoteko legezko arrazoia eta higiezin titularrak, baldin eta titulartasuna Estatuarena, autonomia-erkidego batena edo toki-entitate batena bazen (edo horietako baten mendeko erakunde edo entitate batena), edo atzerriko gobernu batena, Toki Ogasunen Lege Arazteari buruzko Testu Bateginaren 62.1 e) artikuluan aipatutako ondasunei dagokienez. Hau da, Kontseiluak ulertu zuen eskatzaileari ukatu egin behar zitzaioela, orobat, pertsona juridiko diren partikularren higiezin titulartasunari buruzko informazioa, datu babestuak zirelako Higiezin Katastroari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 1/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 51. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Udalak errekurtsua aurkeztu zuen, eta Administrazioarekiko Auzien Epaitegi onetsi egin zuen. Andaluziako Gardentasunaren eta Datu Babesaren Kontseiluak apelazio-errekurtsua aurkeztu zuen aipatu epaiaren aurka, baina arrakastarik izan ez zuenez azkenean kasazio-errekurtsua aurkeztu zuen Auzitegi Gorenean. Eta azken erabaki judizial hori, kasazio-errekurtsua onetsi zuena, aipatzen du bere azalpenean galdera hauek egin dituen foru parlamentariak.

3. Foru parlamentari jaunak aipatutako epaiaren *ratio decidendi*

Epaiak aztertzen du bereziki Tributuei buruzko Lege Orokorraren 95. artikulua, non ezartzen den Tributu Administrazioak eskuratutako informazioaren babes eta erreserba. Edonola ere, erreserba mugatua da, manuak berak jarraian jasotzen baitu kasuen zerranda luze bat, zeinetan Administrazioa gaituta dagoen aipatu informazioa lagatzeko.

Azken finean, aztertzen ari garen epaiak adierazten du kasu horiek, prozeduraren ikuspegi zehatzetik, ez direla datuak hirugarrenei lagatzeko "numerus clausus edo zerranda itxi bat". Eta aipatu artikulua horrek eta horrekin batera aipatzen diren gainerako xedapenek ez dakartela nahitaez

eta beti Gardentasunari buruzko Legea ez aplikatzea. Ildo horretan, honako hau esaten da:

"Ordenamendu juridikoaren osotasunean eta Gardentasunari buruzko 19/2013 Legeko berme berrien argitan interpretatu behar da Tributuei buruzko Lege Orokorra; hortaz, horren erregulazioak ez du ez baztertzen ez aurreikusten Tributu Administrazioari informazioa eskatu ahal izatea tributu-edukiko elementu jakin batzuei buruz, Gardentasunari buruzko Legearen lehenbiziko xedapen gehigarria baita aplikatu beharrekoa baldin eta informazioak ez badu talka egiten partikularren intimitaterako eskubidearekin –Tributuei buruzko Lege Orokorraren 34. artikulua berak partikularrei aitortzen die sarbidea mugatzeko eskubidea–, edo Administrazioak dauzkan datuak beharrezkoak izan daitezkeenean herritarrek beren eskubideak baliarazi ahal izan ditzaten, edo jarduketa publikoaz informatuta egon daitezten. Informazio hori Gardentasunari buruzko Legearen 14. artikuluan ezartzen diren mugei egokitu behar zaie, bai eta 15. artikuluan ezarritako datuen babesari ere. Aurretik azaldutakoarekin zera ondorioztatu behar dugu: Tributuei buruzko Lege Orokorrak ez du jasotzen informaziorako sarbiderako araubide oso eta autonomo bat, baizik eta tributu-datu garrantzitsuen erreserbarako printzipio edo arau orokor bat, herritarren intimitaterako oinarritzko eskubidearen berme gisa (Espainiako Konstituzioaren 18. artikulua). Horiek horrela, Tributuei buruzko Lege Orokorrak tributuen arloko datuen konfidentzialtasunerako dituen aurreikuspen bereziek ez dute baztertzen edo aplikaezin bihurtzen Gardentasunari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean (1. xedapen gehigarria) datuak eskuratzeko diseinatu den araubidea".

Planteamendu horretatik abiatuta Auzitegi Gorenak onetsi egin du errekurtsua, kasu zehatza aztertuta ikusi duelako informazioaren eskatzaileak berak eskaera zedarritzen duela "pertsona fisikoak salbu" utziz, 2018ko Datuen Babesari buruzko Legea aplikatuz (5. artikulua). Era berean, "pertsona juridikoen titulartasunari buruzko datua emateak talka egiten du legedi sektorialarekin berarekin"; beraz, beste arau batzuetara jo behar izan gabe ez zegokion partikularren, pertsona juridikoen nortasunaren (egoitza soziala) datuak helaraztea.

4. Legezko estaldura nahikorik ez Parlamentuko Mahaiak igorritako idazkian doazen galderetan eskatzen den informazioa helarazteko

Egia bada ere parlamentari jaunak aipatzen duena, hau da, aztertu den kasuaren epaiaren arabera Tributuei buruzko Lege Orokorraren 95. artikuluan agertzen den tributu-sekretuak ez daka-

rrela inola ere gardentasunari buruzko legeak ez aplikatzea, hori bezain egia da ere aipatu epaia irakurrita ondorioztatzen dela hala Andaluziako Gardentasunaren Kontseiluak nola, geroago, Auzitegi Gorenak ezetsi zutela zergadunen identifikazio pertsonalaren gaineko edozein datu helarazteko aukera, zergadun horiek pertsona fisiko zein juridikoak izanda. Eta alderdi horretatik, bitxia izan daiteke parlamentariaren eskaeran babesa bilatzea aipatu erabaki judizialean, eskatzen dena baita, hain zuzen ere, hala pertsona fisikoak nola enpresak identifikatzea, 2023an sartuta egon litezkeenak zerga betebeharren ez betetze larri jakin batzuetan.

Halaber, zure idazkian dagokion azalpenik ez dagoenez, zail da ulertzea nola uztartzen den eskatzen duzun informazio zehatza eta zergadunen oinarritzko eskubideak, esaterako, Konstituzioaren 18. eta 24. artikuluetakoak.

Aurretik aztertutako kasutik ondorioztatzen ahal da, bi galdera parlamentarioetan gertatzen den bezala, Zerga Administrazioak bete beharreko konfidentzialtasunaren muina dela tributudunen eskubideak eta interesak gordetzea. Horrela ikusten da Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean aitortzen zaizkien eskubideen katalogoan, bereziki 9.1.h) artikuluan jasotzen dena: "Eskubidea du, legeetan aurreikusitako moduan, Zerga Administrazioak lortu dituen datu, txosten edo aurrekarien sekretutasuna errespetat dadin. Horiei eman ahalko zaien erabilera bakarra da Administrazioak kudeaketa esleitua daukaneko tributu edo baliabideak aplikatzea, eta ezin izanen zaizkie hirugarrenei laga edo jakinarazi, legeetan aurreikusitako kasuetan izan ezik".

Baino horrek ez du esan nahi tributu arlo horri ezin zaionik aplikatu Konstituzioak informazio publikoa eskuratzeko aitortzen duen eskubidea, 105. artikuluan eta gardentasunaren gaineko legeek egiten duten garapenean.

Arrazoibide hori dela eta, ohartarazi behar da zerga-erreserba salbuetsi egin dela 2015 urtetik, besteak beste lekua emateko zerga-jardueraren gaineko gardentasun eta informazio publikoei, hain zuzen ere foru parlamentari jaunaren bi galderetan agertzen den arlo zehatzean: tributu betebeharren ez-betetze nabarmenak.

Halatan, neurri hori Tributuei buruzko Lege Orokorreari gehitu zitzaion irailaren 21eko 34/2015 Legearen bidez (95. bis artikulua), eta Nafarroan abenduaren 28ko 23/2015 Foru Legearen bidez, zeinak 105. bis artikulua sartu baitzuen Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean. Lehen arau horrek, zioen azalpenaren hitzaurrean, justifikatu

egin zuen neurria sartzeara, gardentasun eta informazio publikoaren arloko helburuekin, besteak beste, honakoa adierazten baitzuen: "...abenduaren 17ko abenduaren 17ko 58/2003 Tributuen Lege Orokorrean aipatutako zordunen zerrendak argitaratzeko neurria iruzur fiskalari prebentzioko eta hezkuntzako tresnen bitartez aurka egiteko esparruan txertatu behar da; tresna horiek zerga-betebeharrak borondatez bete daitezten bultzatu behar dute, zerga-arloko benetako kontzientzia zibikoa garatzen lagundu behar dute, eta jarduera publikoaren gardentasunaren ondoriozko publikotasun aktiboa sustatu behar dute, jakin beharreko informazioari dagokionez".

Eta honakoa gehitzen zuen: "Neurriak erabat errespetatzen du zerga-datuen erreserba, eta, beraz, baita erreserba horren oinarri diren printzipioak ere, baina betiere ahaztu gabe gai horretan eragin handia duela intimitaterako eskubidea babesteko printzipioak eta zerga-sistemaren eraginkortasunaren printzipioa indartu egin behar dela; printzipio horiek guztiak batu, eta ikuspegi kuantitibo garrantzitsu batetik begiratuta gaitzesgarriak diren zerga-jokabideak baino ez dira publiko egingo. Horretarako, legegileak Ogasun Publikoarentzat kalte ekonomiko handiena eragiten duten jokabideak zabaltzea soilik baimenduko du, zorren tipologiaren arabera Legean ezarritako borondatezko epean ordaintzeko hasierako epeetan ez ordaintzearen ondorio diren jokabideak izanik. Azken batean, zenbait kasutan gardentasunaren eta publikotasunaren printzipioek Konstituzioaren arabera babestutako beste eskubide batzuekin –hala nola, intimitaterako eta datuak babesteko eskubideekin– talka egin dezaketzen arren, zer interes babestu nahi diren aztertu behar da, eta, horretarako, bereziki izan behar dira kontuan Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 4.1 artikuluan bildutako proportzionaltasunaren, zehaztasunaren eta datuak kontserbatzearen printzipioak. Gure inguruko herrialdeetan ere –esaterako, Alemanian edo Finlandian– horrelaxe egiten dute, tributuei buruzko datuen konfidentzialtasunaren printzipio orokorrari hainbat salbuespen eginda. Gure inguruko herrialdeetan ere –esaterako, Alemanian edo Finlandian– horrelaxe egiten dute, tributuei buruzko datuen konfidentzialtasunaren printzipio orokorrari hainbat salbuespen eginda". Egia da interesekoa izan daitekeela 24ko 257/2021 AGE hori, foru parlamentari jaunak bere eskaria aldezteko aipatzen duena, baina uste dugu bere galderen xedea ebazteko egokiagoak direla auzitegi horrek berriki emandako lau epai, 2023koak, non zedarritu diren Zerga Administrazioak zer muga eta baldintzarekin dagoen legez

gaituta betebeharren ez-betetze garrantzitsuetan sartu diren zergadunen nortasuna publikoki aditzera emateko. Honako AGE hauek dira: urtarrilaren 20ko 50/2023, urtarrilaren 20ko 86/2023, eta otsailaren 2ko 130/2023 eta 1/2023.

Laburtasunaren eta zehaztasunaren mesederako, ez ditugu zehatz-mehatz aztertuko aipatu epaiak, nahikotzat jotzen baitugu azaltzea Nafarroako Foru Ogasunak duen irizpidea, aurkeztutako bi galderei dagokienez, kontuan hartuta kasuari aplikatzen ahal zaion legezko araudia eta aipatutako jurisprudentzia zeina, Tributuei buruzko Lege Orokorraren 95.bis artikulua aztertu bazuen ere, berdin aplikatu ahalko litzaiokeen foru araudiari, bi arau horien arteko antzekotasuna ikusita.

Galderen ordena aldatuta, foru parlamentari jaunak honako hau jaso nahi du:

a) 2023an egindako ikuskapen-lanen arabera delitu fiskala egin bide dituzten eta Fiskaltzaren edo justizia-auzitegien aitzinean salatutako pertsona fisiko edo juridikoen identifikazioa.

Informazio hori ezin da eman.

Hori dela-eta, gogora daiteke Botere Judizialaren Lege Organikoaren 235. bis artikulua:

"1. Publikoa da kondena-epai irmoen epaizetan jasotako datu pertsonaletarako sarbidea, epai horiek honako artikulua hauetan jasotako delituengatik jaulki direnean:

a) Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoaren 305, 305 bis eta 306. artikulua".

Manu horiek Ogasun Publikoaren aurkako iruzurren delituei dagozkie.

Zigor arloa hain serioa denez, aipatu kasuetan Ogasun publikoaren aurkako delituagatik hori tipifikatzen duten artikuluen arabera zigortua denaren datu pertsonalak publiko egiteak nahitaez behar du zigor-zuzenbideko zigor irmoa; horrek esan nahi du ezin dela publizitaterik txikiena ere egin zigor prozesu batean dauden zergadunen datuei buruz, harik eta zigor hori, kasua bada, erabakitzen den arte.

Horregatik Auzitegi Gorenak, aipatu epaietan, ezarri du zordunen nortasunari buruzko publizitatearen legezko araubidea, ustezko delitu fiskalaren kasuan, erreserbatuta dagoela, bakar-bakarrik, kondena-epai irmoaren egoerarako eta, beraz, delituarekin lotutako likidazio batean adierazitako zorraren likidazio soilarekin Zerga-administrazioa ez dagoela gaituta tributudunen nortasuna publiko egiteko.

b) Enpresaren sozietate-izena, 2023ko ekitaldian zehar ordaindu gabe utzitako 100 milioi euro ordain ditzan eskatu zaionarena BEZaren tributukudeaketan.

Halaber, ezinezkoa da informazioa ematea Foru Ogasunak 2023an zerga-kontrolako zereginetan jomugatzat hartu dituen pertsona fisiko edo juridikoei buruz.

Foru parlamentariak berak bere galderen testuaren aurretik eginiko azalpenean nabarmendu bezala, ez da inolako problemarik egon behar herritarrei informazioa emateko Ogasun Publikoaren zorretan daudenen zerrenden kasua bezalakoetan (izena, abizenak, sozietate-izena, IFZ), zerga-zor eta/edo -zehapenen guztizko zenbatekoak gainditu egiten duenean zerga-legeriak ezarritako atalasea.

Ez dago halako problemarik, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrak (eta, estatu-mailan, Tributuei buruzko Lege Orokorraren 95. bis artikulua) baimendu egiten baitute zerga-betebeharren urratze muntadunetan ari diren zergadunen identitatearen berri ematea. Baina zergadun horiei buruzko publikotasunaren taxutze juridikoa, norainokoari eta baldintzei dagokienez, hain zuzen ere egin da Auzitegi Gorenaren lau epai jada aipatuetan ezarritako aginduak betez.

Zuzenbidezko agindu horri jarraikiz, 2024ko ekainaren 27an jendaurrean paratu zen, Nafarroako Foru Ogasunaren webgunean, zehaztutako arauak aipatzen duen zordun-zerrenda.

Jendaurreratze horren bitartez, Nafarroako Foru Ogasunak bete egin zuen zorrak dituzten pertsonak eta enpresak zerrendan sartzearen betebeharrak juridikoa, 2023ko abenduaren 31n ez etenda ez geroratuta egon gabe 120.000 euro baino gehiagokoak izatearen baldintzak betetzen zituztenak. Hain zuzen, Auzitegi Gorenak baldintza horiek nahitaez bete beharrekotzat jo ditu zergadun horien identitatea jendaurrean paratu ahal izateko, ezen "zerga-betebeharren ez-betetze muntadunen jendaurreratzearen ondorioetarako, 95. bis artikuluko zerrendetan jaso ahalko diren bakarrak dira Ogasun Publikoaren zordunak izatea zerga-zor edo -zehapen irmoetatik datorkien pertsona fisiko edo juridikoa", Adierazten denez, bete beharrekoa da baldintza hori zeren, bestela,

"Zergei buruzko Lege Orokorraren beraren konstituzionaltasuna auzitan jarri beste irtenbiderik" ez bailegoke, "dela pribatutasunaren balizko urraketa batengatik, dela segurtasun juridikoaren printzipioaren urraketa nabariagatik; printzipio hori, Konstituzioaren 9.3 artikuluan jasota egoteaz

gain, Zergei buruzko Lege Orokorraren lehentasun behinenetako bat izaki”.

Eta, ildo horretan, Auzitegi Gorenak zerga-administrazioei ohartarazten die ondotxo begira daitezzen zerga-zordunen identitatea gorago azaldu diren bermeak eta baldintzak betetzen ez direlarik jakinarazi edo ezagutaraztetik, osterantzean haien ospeari kalte egitearen arrisku nabariagatik; halako moldez non, Auzitegi Gorenaren hitzetan, "arras zuhurki, hausnartuki eta txukunki" erabili behar baita legebide hori.

Foru parlamentariak 2024ko ekainaren 13an erregistratu zuen Parlamentuko Mahaiari zuzenduriko eskaera; eta ondoren, 2024ko ekainaren

27an, Nafarroako Foru Ogasunak jendaurrean paratu zuen, bere webgunean, 2023ko abenduaren 31n beren identitatea jendaurrean jar dakiekeen pertsona fisikoen eta enpresen zerrenda.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 19an

Lehendakariorde eta Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón

(ordezkari gisa, Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariaren ekainaren 25eko 15/2024 Foru Dekretuaren arabera)

## 11-24/PES-00311. Galdera, iktusa artatzeko Nafarroako Planari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak iktusa artatzeko Nafarroako Planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Iktusa artatzeko Planari buruz (11-24/PES-00311). Hona Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Zertan da Nafarroan iktusaren arretari ekiteko plan estrategikoaren taxuketa edo ezarpena (baldin eta jada taxututa badago)?

Osasun Ministerioak iktusaren ondorioak prebenitzen eta samurtzen saiatzeko zenbait ekimen abiarazi ditu. 2009an argitaratu zen Osasun Sistema Nazionalaren Iktusari buruzko Estrategia, zeinaren bitartez herrialdearen egoera epidemiologikoaren analisi bat egin baitzen eta hobekuntza-helburuak garatu baitziren gaixotasunaren

inpaktua murrizteko beharrezkoak diren prebentzio- eta tratamendu-ildo nagusietarako, arretakate osoa barne harturik.

Osasun Sistema Nazionalaren Iktus Estrategia 2024ko apirilaren 5ean eguneratu eta onetsi du Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluak.

Aipatu dokumentuan sei ildo estrategiko jasotzen dira, eta horietan datoz bildurik helburu orokorrak nahiz zehatzak, zein bere gomendio teknikoekin:

- 1. ildo estrategikoa: Osasun-sustapena eta oinarrizko prebentzioa
- 2. ildo estrategikoa: Bigarren urratseko prebentzioa
- 3. ildo estrategikoa: Fase hiperakutua. Artatze-antolaketa, diagnostikoa eta tratamendua
- 4. ildo estrategikoa: Iktusaren Unitatea
- 5. ildo estrategikoa: Neuroerrehabilitazioa eta iktus osteko bizitza
- 6. ildo estrategikoa: Ikerketa eta prestakuntza

Iktusari buruzko Estrategiaren eguneratzea transbertsala da izaeraz, eta hainbat dira interesdunak haren helburuan, zeina baita iktuserako arreta eta ekinaldia hobetzea eta osasuna nahiz gaixotasun zerebroaskularraren prebentzioa

sustatzea. Horrenbestez, dokumentuak populazio osoa hartzen du asmotan.

2021eko ekainean, Nafarroan "Iktus kodea" zeritzon dokumentua prestatu zen: iktusdun pazienteentzako ekinaldiari buruzko informazioa, profesionali zuzendua.

2023ko urrian, eta ikusirik neurologiako profesionalek Nafarroan iktuserako estrategia bat egon beharri buruz adierazitako eskaera eta premia, Osasun Departamentuaren ordezkari bat bidali zen Madrilén egin zen bilerara, Ministerioa Osasun Zerbitzu Nazionalaren iktus-estrategian egiten ari den eguneratzeari buruzkora, aurrerapausoak ematearren hura Nafarroan dugun errealitatera egokitzerantz.

Osasun Sistema Nazionalaren iktus-estrategia eguneratu eta OSNaren Lurraldearteko Kontseiluak onetsi ondoren, erabaki zen bultzada ematea Nafarroako iktus-estrategiari.

Departamentuak koordinatzaile/bultzatzaile dihardu estrategia honen taxuketa eta politikarako (gainerako estrategiekin bezalaxe). Eduki teknikoaz zerbitzu klinikoak eta bestelako batzuk arduratzen dira; batez ere, Osasun Laguntza Emateko

Zuzendaritza (Osasun Laguntzaren Eraginkortasun eta Segurtasunerako Zerbitzua). Jardunmolde horretan, talde antolatzaile eta eragile bat sortu zen, non, Departamentuaz gain, ordezkari-tza baitaude Eriari Osasun Laguntza emateko Zuzendaritzak, Nafarroako Ospitaleguneko Kudeatzaileak eta Osasun Laguntzaren Eragin-kortasun eta Segurtasunerako Zerbitzuak.

Talde horrek lanean dihardu, zehazte aldera estrategiaren arduradun klinikoak eta ezarritako sei ildo estrategikoetako bakoitzerako lantaldeen partaideak. Horietan parte-hartze aktiboa izanen dute neurologiako eta oinarrizko osasun-laguntzako espezialistek, bai eta egokitze jotzen diren beste profesional batzuek ere, ildo horien transbertsaltasuna dela-eta.

Gaur den egunean jada zehaztuak izaten ari dira helburuak, bai eta estrategia hori ebaluatzeko adierazleak ere.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 12an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Cunchillos Domínguez

## 11-24/PES-00312. Galdera, Viana 1-eko lurzati-berrantolamenduari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak Viana 1-eko lurzati-berrantolamenduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak 11-24/PES-00312 galdera egin du, idatziz erantzundakion. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Zergatik ez da lurzati-berrantolamendua egiten Viana 1-en eta urratzen da, halatan, martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legea?

Viana 1-eko lurzati-berrantolamendua honako fase hauetan egin zen:

1. Foru Dekretua, 1990eko otsailaren 15ekoa, zeinaren bidez Vianako lurzati-berrantolamendua hasten baita, eta onura publikokotzat eta urgentziazko exekuziokotzat deklaritzen.

2. 249/1991 Ebazpena, abuztuaren 21ekoa, Nafarroako Lurzoruaren eta Lurzati Berrantolamenduaren Institutuaren zuzendariarena. Horren bidez, onetsi egiten dira Viana I eremuko Lurzati Berrantolamendurako Behin Betiko Oinarriak.

3. Ebazpena, 1995eko urriaren 2koa, Nekazari-tza, Abeltzaintza eta Sustapeneko zuzendari nagusiarena. Horren bidez, onetsi egiten da Viana I eremuko Berrantolamendu Erabakia.



4. Viana I eremuko jabetzaren berrantolaketari buruzko akta, 2001eko ekainaren 13koa.

Hortaz, Viana I-eko lurzati-berrantolamenduko jarduketak duela 23 urte amaitu ziren. Garai hartan ez zegoen indarrean 1/2002 Foru Legea, martxoaren 7koa, Nekazaritza-azpiegiturei buruzkoa, baizik eta 18/1994 Foru Legea, abenduaren 9koa, Nekazaritzako Azpiegituren Erreformari buruzkoa.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 4an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

## 11-24/PES-00313. Galdera, Foruzaingoak egindako arma eta lehergai konfiskatzei eta salaketei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak Foruzaingoak egindako arma eta lehergai konfiskatzei eta salaketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez Nafarroako Gorteetako kideak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, idatziz erantzuteko galdera hauek egin ditu. Hona hemen Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horren harira ematen duen informazioa:

1) Zertan dira Foruzaingoak azken hilabeteotan egindako arma eta lehergai konfiskatzeak eta salaketak?

2) Departamentuak zer egitea aurreikusten du?

2024ko uztailaren 16an, Foruzaingoko Kudeaketa Administratiboaren eta Ekonomikoaren Taldeko buruak jakinarazi zuen ezen, Gobernuaren Ordezkaritzaren eskumeneoak diren administrazio-salaketei zegokienez, eta aplikazio informatiko berri baten bitartez izapidetze-sistema aldatu ondoren, Foruzaingoko langileentzako beharrezko baimenak aktibatuak izaten ari direla, halako moldez non salaketa horietatik aurtengoak direnak

izapidetzeari ekin baitzaio, 2023koak jadanik amaituta egonik.

Izapidetzearen aurretiazko urrats gisa, Foruzaingoak formulario batean egiten du erregistroa, Ordezkaritzatik bidalitako datu eta oharrekin. Erregistratuak izan ondoren, sarrera-URLa ematen zaio Gobernuaren Ordezkaritzaren aplikatiboan.

GNPF\_ ezizenarekin aplikatiboan sartzen saiatzean, Foruzaingoak akats-mezu batekin topo egiten du; horregatik, harik eta arazoa konpontzen den arte, datu pertsonalak erabiliz abiatu da aplikazioarekiko lana, 'Autentic@' aplikazioan aurretiazko alta hartuta.

Denborak eta efektuak mugatze aldera, oroitarazi beharrekoa da ezen bide publikoan armak eta lehergaiak edukitzea, operatiboek salaturiko inguruabarretan, Herritarren Segurtasunari buruzko 4/2015 Lege Organikoaren (36.10 eta 36.12, hurrenez hurren) urraketa larria dela. Preskripzioepea urtebetekoa da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 22an

Lehen lehendakariorde eta Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren orde (Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren 17/2024 Foru Dekretua, uztailaren 3koa)

## 11-24/PES-00314. Galdera, Segurtasun Batzordea foruzainen kopurua handitze aldera deitzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Segurtasun Batzordea foruzainen kopurua handitze aldera deitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, idatziz erantzuteko galdera (11-24/PES-00314) egin dio Nafarroako Gobernuari. Hona hemen Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak ematen duen informazioa:

Hasiera batean Lan Publikoaren Eskaintzan jaso ziren Foruzaingoko postuak erretiratuak izan ziren egitarautik, aurreikusten baitzen ezen, 2024. urte honen bukaera-partean, eta Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan gaur egun prestakuntza jasotzen ari diren ehun izangaiak zerbitzura pasatzean, Foruzaingoak Segurtasun Batzordeko akordioan ezartzen diren 1.200 agentek baino gehiago izanen dituela.

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentua harremanetan egon da Segurtasuneko Estatu Idazkaritzarekin eta Ogasuneko Estatu Idazkaritzarekin, aurrerapausoak ematearren balizko akordio baten edukian eta norainokoa,

zeina Segurtasun Batzordean sinatu beharko bali-tzateke eta modua emanen bailuke, ordenamendu juridikoaren arabera Nafarroan erreferentziazko polizia gisa dagozkion eskumenen indarrez, foruzain gehiago edukitzea Segurtasun Batzordeko 2009ko akordioan jasotako kopurua baino.

Orain arte egindako estimazioak egungo eskumen-egoeran oinarritzen dira, trafikoaren zaintza eta kontrolaren eskumen eskusiboa baizik erantsi ez dela.

Giza baliabideen kudeaketa giltzarri dugu Gobernu honek Foruzaingoarekiko duen konpromisoan. Alde horretatik, badakizue Gobernuak apustu egiten duela postu-kopurua finkatu eta indartzearen alde. Ildo horretatik erdietsi du gaur egun Foruzaingoak bere historiako foruzain-kopururik handiena.

Indartze-ekimen horrek jarraipena dauka legegintzaldi honetan, zeinetan erronkatzat baitugu kidegoaren tamaina egungo premietara doitzea, bai jardunaren aldetik, bai postu-berritzearen eta erretiro-hartzeen aldetik ere, halako moldez non jardun-eremu desberdinetan sortzen diren balizko beharrei erantzuteko moduko eskuartea lortuko baita. Horretan dihardu Departamentuak.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 22an

Lehen lehendakariorde eta Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren orde (Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren 17/2024 Foru Dekretua, uztailaren 3koa)

## **11-24/PES-00315. Galdera, 2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta anitz baterako programa-akordioko 6. puntuari buruzkoa (6. puntua: "Azterlan bat egitea bizitegiak publikatzeko agenda bat ezartze aldera, desgaitasuna dutenei lehentasuna emanen diena")**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Aramburu Bergua andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, 2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta anitz baterako programa-akordioko 6. puntuari buruzkoa (6. puntua: "Azterlan bat egitea bizitegiak publikatzeko agenda bat ezartze aldera, desgaitasuna dutenei lehentasuna emanen diena"), 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Geroa Bai talde parlamentarioko Isabel Aramburu Bergua andreak honako galdera hau egin du (11-24/PES-00315), idatziz erantzun dakion: "2023-2027 aldirako Nafarroako Gobernu aurrerakoi eta anitz baterako programa-akordioko 6. puntuak honako hau dio: 'Azterlan bat egitea bizitegiak publikatzeko agenda bat ezartze aldera, desgaitasuna dutenei lehentasuna emanen diena'. Departamentu horrek zer urrats egiteko asmoa darabil gogoan hori betetzeko?". Hona Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak asmoa du urgazpen teknikoa enkargatzeko, bizitegien publikazioari buruzko erabaki-hartzean lagunduko duena. Honako faktore hauek hartuko dira kontuan:

– Administrazio publikotik kudeatzeko modukoak diren zerbitzuak.

– Kudeaketa publikoko formula posibleak eta horietako bakoitzerako beharrezkoak diren izapideak.

– Egungo kudeaketarekin alderatuta kudeaketa publikoak dituen abantailak eta desabantailak.

– Kudeaketa publikoko formula posibleen abantailak eta desabantailak.

– Kudeaketaren aldaketak duen kostu estimatua.

Informazio horrekin, departamentuak Gobernu Kontseiluari helarazteko moduko proposamen errealista bat egin ahal izanen du, bai eta agenda posible bat ere.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## 11-24/PES-00316. Galdera, trafikoko isunak *online* ordaintzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Irene Royo Ortín andreak trafikoko isunak *online* ordaintzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide eta foru parlamentari Irene Royo Ortín andreak, Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikiak, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan (11-24/PES-00316), Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean: "Nafarrek noiztik aitzina ordaintzen ahalko dituzte

trafiko-isunak online?". Hona Nafarroako Gobernu Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horri buruz jakinarazten duena:

Gaur den egunean, nafar herritarrek online jadanik ordain ditzakete trafiko-alorrean eskudun diren administrazioek nor bere prozedurari jarraituz jartzen dizkieten trafiko-zehapenak, bakoitzari bere egoitza elektronikoan.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 22an

Lehen lehendakariorde eta Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren orde (Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren 17/2024 Foru Dekretua, uztailaren 3koa)

## 11-24/PES-00317. Galdera, joko-aretoak ixteko ordutegia 3 orduz murrizteari eta, aldiz, erregioko bingoak ixtekoa 30 minutuz soilik murrizteari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak joko-aretoak ixteko ordutegia 3 orduz murrizteari eta, aldiz, erregioko bingoak ixtekoa 30 minutuz soilik murrizteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89 Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak honako galdera idatzi hau egin du, Legebil-

tzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean: Nafarroako Foru Komunitateko Jokoen eta Apustuen Erregelamendua onesten duen forudekretuaren proiektuaren arabera, 3 orduz murriztuko da joko-aretoak ixteko ordutegia, eta 30 minutuz soilik erregioko bingoak ixtekoa. Nafarroako Gobernuak zergatik egingen du hori? (11-24/PES-00317). Hona Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Foru Komunitateko Jokoen eta Apustuen Erregelamendua onesten duen forudekretuaren proiektuak honako hau dio 166. artikuluan:

166. artikulua. Funtzionamendu-ordutegiak

Jokorako lokal edo instalazioen itxiera-ordutegi orokorra honako hau izanen da:

a) Bingo-aretoak: 03:00.

b) Joko-aretoak: 00:30.

c) Kirol-apustu-erako lokalak: 00:30.

Barne Zuzendaritza Nagusiko Segurtasun Politikak Garatzeko Zerbitzu hau lanean aritu da goiburu harturik zaurgarrien diren kolektiboak babestea eta Administrazio gisa aginduzkoa duela segurtasun publikoa kaltetuta gerta daitekeen egoerei aurre egitea. Hain da hori horrela, ezen 2021etik 2023ra bitartean joko-aretoen, bingo-aretoen eta apustudenden inguruetan izandako salaketa, gertakari, arau-hauste administratibo eta delituei buruzko datuetan oinarrituz lan egin baita. Datu horiek guztiak jokoarekin bere orokortasunean zerikusia duten gertakari-erri buruzkoak dira, eta ez da kontuan hartu pertsonen edo ondarearen aurkako bestelako delituri; alegia, datu horiek zorrozki mugatzen dira tan-ker horretako establezimenduetan izandako gertakari-erri, hertsiki joko-jardunarekin zerikusia dutenetara.

Gainera, nabarmendu beharrekoa da datu horiek guztiak Foruzaingoak bildu dituela; hots, Nafarroako Gobernuaren mendeko polizia-kidego batek. Horrenbestez, azterturi-ko epean guztira 93 gertakari, salaketa eta gorabehera erregistratu dira Nafarroa osoan. Horietatik, % 50ek zerikusia dute Foruzaingoaren unitate espezializatuek egindako zaintza-jarduerekin; % 26k, herritarren segurtasunaren alorreko prebentzio-kontrol-ekin; eta % 13k, Herritarren Segurtasunaren Babeserako mar-txoaren 30eko 4/2015 Lege Organikoaren urraketa astunekin –zehazki, horren 36. artikulua-ekin–. Gertakari horiek guztiak joko- eta apustu-establezi- menduetan gertatu dira; ez da ezein gertatu bingo-establezimenduetan.

Azterturi-ko datuek erakusten dute ezen Iruña, Tafalla, Lizarra, Altsasu eta Tuterako polizia-etxe- en jardun-eremuetako udalak direla gertakari gehien nozitu dituztenak (ez da gertakari-erri er- registratu ez Zangozako polizia-etxean, ez eta Eli- zondokoan ere). Zehazki, Iruñeko polizia-etxearen jardun-eremuan (Foruzaingoaren unitate zentra- lak), gertakariak Nafarroako hiriburuaren auzo guztietan erregistratu dira (Buztintxuri, Sanduzelai,

Iturruma, Arrosadia...), bai eta beste udal-erri ba- ztuetan ere, hala nola Sarrigurenen (Eguesibar), Atarrabian, Burlatan eta Berriozarren.

Tuterako polizia-etxearen eragin-eremuan salaketak, gertakariak, arau-hausteak edo deli- tuak, Tuteran bertan jazotzeaz gain, halaber Cin- truenigon, Corellan, Castejonen eta Cascanten ere agitu dira.

Tafallako polizia-etxe-ari dagokionez, herrian bertan gertaturikoez gain Milagroko datuak ere erregistratu ditu. Lizarrako polizia-etxeak herrian bertan erregistratu ditu, eta Altsasukoak ere, herrian bertan.

Berariazko araudiaren urraketa-erri zeha- pen-proposamenak aurkeztu dira joko-areto eta apustu-denden kasuan. Beste arrazoi batzuk izan dira jarduera-baimenik ez edukitzea, lokalaren barrenean erretzen uztea eta adingabeei nahiz debekudenei sartzen uztea.

Argi dago Jokoaren Legearen aldaketak arlo horretan egin beharreko bidea erakusten diola Administrazioari. Baldin eta zaurgarrienak diren kolektibo- en eskubideak babestu nahi badira, logi- koa dirudi uler dadila joko-establezimenduen itxie- ra-ordutegiek murriztaileagoak izan behar dutela 2002an ezarritakoak baino. Bestetik, segurtasun publikoa bermatzeko polizia-ekintzek behartzen gaituzte araupean jartzera egunaren gainerako orduetan baino delitu-indize altuagoak dituzten ordutegiak.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parla- mentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 22an

Lehen lehendakari-orde eta Lehendakari-za eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kon- seilariaren orde-za (Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren 17/2024 Foru Dekretua, uztaila- ren 3koa)

## **11-24/PES-00318. Galdera, Jokoei eta Apustuei buruzko Erregelamenduak ukitutako enpresetan enplegua suntsitzeari eta lan-baldintzak aldatzeari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak Jokoei eta Apustuei buruzko Erregelamenduak ukitutako enpresetan enplegua suntsitzeari eta lan-baldintzak aldatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak honako galdera idatzi hau egin du, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean: Inolako baloraziorik egin al du Nafarroako Gobernuak neurri horiek izan dezaketen eragina dela-eta? Hau da, neurri horiek enplegua zuzenean ala zeharka suntsitzen ahal duten eta ukitutako enpresetan lanaren antolamenduaren gaineko baldintzak aldatzen ote dituzten? (11-24/PES-00318). Hona Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Foru Komunitatean Joko eta Apustuen Erregelamendu Orokorra onesten duen Foru Dekretuaren proiektua egina da Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea (zeina uztailaren 1eko 21/2022 Foru Legearen bidez aldatu baitzen) garatzeko.

Azken foru lege horren zioen azalpenean adierazten den bezala, "Jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen da, lege-aldaketak eginez lokal eta makinaren araudian, irekitzeko eta ixteko ordutegietan, kontrolean, publikitatean eta babesletzan, helburu izanik adikzioaren arriskuak arintzea, irisgarritasuna gutxitzea, babes

faktoreei eragitea hezkuntzaren bidez eta gizartea sentibilizatuz, eta, azken batean, hezkuntza, familia, gizarte eta osasun esparruen arteko interakzioarako mekanismoak ezartzea.

Arauaren aldaketak tresna eraginkorra izan behar du jokoaren aurrean sektore kalteberenak babesteko, batez ere adingabeak, gazteak eta nerabeak, horiek zaintza edo babes berezia behar baitute. Horregatik, Administrazioaren esku-hartzeak xede izan behar du arriskua duten kolektiboak defendatzea merkatu irekiko eta lehia libreko ekonomiaren testuinguruan, arreta berezia jarriz haur eta gazteei, josteta-jarduera batek ez ditzan joko patologikora eraman".

Jokoaren sektorearekin lotura duen jarduera ekonomikoa, bere modalitate desberdinetan, kontrolatu egiten dute administrazio publikoek, zeinek, merkaturatze-murrizketa batzuk ezarriz eta jokoarekin lotura duten jarduera ekonomikoaren gauzatea arautuz, osasun publikoa babestea bilatzen baitute, batik bat zaurgarritasun-egoeretan. Ideia hori goiburu gisa harturik, araugintza-prozesuak ezartzen dituen eragin sektorial guztiak aztertu dira, eta oreka bilatu da administrazioaren esku-hartzearen eta enpresa-jardunarekiko begirunearen artean. Hain zuzen, enpresa-jardun hori da lanaren eta enpleguaren baldintzen antolaketari dagozkion neurriak hartu beharreko alorra, eraginarekin eta aukeren enpresa-analisia egin ondoren.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 22an

Lehen lehendakariorde eta Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren orde (Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren 17/2024 Foru Dekretua, uztailaren 3koa)

## 11-24/PES-00319. Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak gogoan darabilen BMB motako makinak joko-aretoetan ere para daitezen baimentzea

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak gogoan darabilen BMB motako makinak joko-aretoetan ere para daitezen baimentzea, 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak honako galdera idatzi hau egin du, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean: Nafarroako Gobernuak gogoan al darabil BMB motako makinak joko-aretoetan instalatu daitezen baimentzea? (11-24/PES-00319). Hona Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Foru Komunitateko Jokoen eta Apustuen Erregelamendua onesten duen foru-dekretuaren proiektuak honako hau dio 136. artikuluan:

136. artikulua. Sari programatudun joko-makinak, edo B motakoak.

Sari programatudun joko-makinak, edo B motakoak, honela sailkatzen dira:

a) BR motako joko-makinak.

Joko-makina bakunak dira, jokalaria bakarrekok, non jolas- edo josteta-xedeak nagusitasuna baitauka apustuaren zenbatekoaren aldean. Zilegi izanen da makina horiek joko-aretoetan eta ostalaritza-establezimendu prestatuetan paratzea.

b) BS motako joko-makinak.

Joko-makina bereziak dira, jokalaria bakarrekok, eta horiekin lor daitezkeen sariak balio handiagoa dute aurreko ataleko makinak sariak baino. Haien nolakotasun berezia berariaz eta argiro ezagutarazi beharko da haien aurrealdean, eta joko-aretoetan soilik paratzen ahalko dira.

c) BG motako joko-makinak.

Bingo-jokoan oinarrituriko joko-makina bereziak.

d) BM motako joko-makinak.

Jokalaria-postu bat baino gehiagoko BR, BS edo BG motetako makinak dira, modua ematen dutenak bi jokalarik edo gehiagok nor bere kasa nahiz guztiek batera parte hartzeko. Makina horiek joko-aretoetan soilik paratzen ahalko dira, eta postu bakoitzean joko-konfigurazio desberdinak eduki ahalko dituzte, nahiz eta altzari bakarra osatu beharko duten. Halaber, gutxienez amankomuneko joko bat eduki beharko dute.

e) BMB motako joko-makinak.

BM makinak dira, amankomuneko joko bat daukatenak edo jokalarien arteko jokorako modua ematen dutenak. Partidaren prezioa elkarrekiko jokaldietarako aukeren bidez zuzenean ordaintzea ahalbidetzen dute. Makina horiek bingo-aretoetan jarri ahal izanen dira.

Beraz, eta aipatu artikularen e) letran ezarritakoa gogoan, Nafarroako Gobernuak asmotan duen gauza bakarra da BMB joko-aretoetan jar daitezen baimentzea, eta ez beste establezimendu batzuetan.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 22an

Lehen lehendakariorde eta Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren orde (Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren 17/2024 Foru Dekretua, uztailaren 3koa)

## **11-24/PES-00320. Galdera, bingoetan dauden B motako makinak joko-aretoak ixteko orduaz haratago funtzionatzen jarraitzeari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak ingoetan dauden B motako makinak joko-aretoak ixteko orduaz haratago funtzionatzen jarraitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak honako galdera idatzi hau egin du, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean:

Foru-dekretuaren proiektuaren gaur egungo testuak zergatik baimentzen du bingoetan dauden B motako makinak joko-aretoak ixteko ordua eta gero funtzionatzen egotea? (11-24/PES-00320). Hona Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Bingo-areto gisa jarduteko baimenak esan nahi du zilegi dela, ohiko bingo-jokoa merkatura-

tzeaz gain, bezeroei beste joko batzuk eskaintzea ere, B motako makinaren bitartez.

Nafarroako Foru Komunitateko Jokoen eta Apustuaren Erregelamendua onesten duen foru-dekretu proiektuaren 166. artikulua joko-areto edo -instalazioen itxiera-ordutegi orokorra jasotzen du: bingo-aretoena 03:00ak dira; joko-aretoena, 00:30a; eta kirol-apustuarekiko lokalena, 00:30a. Alegia: artikulua ez du inolako murriztapenik ezartzen lokaletan egiten diren jokoentzat, baizik eta kasuko lokalaren itxiera-ordutegia zehazten du –bingo-aretoa, joko-aretoa nahiz apustu-lokala dela–, halako moldean ez baita zalantzan jartzen B motako makinak bingoetan funtzionatzen jarraitzea joko-aretoen itxiera-orduz harago.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 22an

Lehen lehendakariorde eta Lehendakaria eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren ordezkari (Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren 17/2024 Foru Dekretua, uztailaren 3koa)



## 11-24/PES-00321. Galdera, ekografia urgenteetarako irispideari begira merkatuko alde aurretiko kontsulta egiteari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak ekografia urgenteetarako irispideari begira merkatuko alde aurretiko kontsulta egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galde-

ra egin du ekografia urgenteetarako irispidea dela-eta merkatuko alde aurretiko kontsulta egiteari buruz (11-24/PES-00321). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak ematen duen informazioa:

Amaitu da proposamenak aurkezteko epea. Une honetan, baloratuak izaten ari dira. Balorazio horretatik iristen diren konklusioek tankeratuko dituzte parlamentariak egiten dituen gainerako galderak.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 5ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-24/PES-00322. Galdera, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerara bidegabeki kobratutakoa itzultzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerara bidegabeki kobratutakoa itzultzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak, Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko aurkezturiko 11-24/PES-00322 galderari dagokionez, honako hau jakinarazten du:

2023an zehar, prestazioa urte horretan ezarri baitzen, Nafarroak kudeaketa bere gain hartuta eta

urteko berrikusketa ezin zenez egin, 9 itzulketa-espeditente abiarazi ziren, jasotzaile-baldintzak urratzearen ondoriozkoak.

2024ko urtarrilean 2023ko prestazioaren berrikuspena egin zen, halako moldez non 5593 espeditente berrikusi baitziren. Berrikuspen-prozedura horren ondorioz, itzulketa-prozedura bat abiaraziko da berrikuspenaren ondorioz prestazioan baja eman zitzaien espeditenteentzat (275), baldin zor hori berdintzeko moduko beste espeditente batzuekin (errenta bermatua) ez badatoz bat. Itzulketa eginen da kasuko ordainketa-gutunaren bitartez; edo, berrikuspenak prestazioaren baja ekarri eta Departamentuaren prestazioren bat batera suertatzen den kasuetan, Bizitzeko Gutxieneko Errentan sorturiko zorra beste prestazio horren (Errenta Bermatua) espeditentera igorri da, horrekin konpentsatzeko.

2023ko berrikuspenak Bizitzeko Gutxieneko Errentaren zenbatekoa jaitsarazi duen espeditentean (1239), halatan kopuruak itzultzeraren hartaratu-ta, itzuli beharreko kopuru hori konpentsatu egin da

Bizitzeko Gutxieneko Errentaren aurrerantzeko hileroko ordainketetan, Bizitzeko Gutxieneko Errentari buruzko araudian (edo, halakorik ezean, Gizarte Segurantzako zor-itzulketari buruzko araudian) ezarritako prozeduraren eta portzentajeen arabera. Talde horren barrenean, eta Bizitzeko Gutxieneko Errentari buruzko araudiari jarraikiz, zorra harako bizikidetzta-unitateei barkatu zaie zeinetan, adingabeak egonda, zorraren zenbatekoa txikiagoa baitzen hileko pentsio kotizaziogabearen % 65 baino.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## 11-24/PES-00323. Galdera, bazterkeria handiko egoeran dauden pertsonentzako egoitza-tokiei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak bazterkeria handiko egoeran dauden pertsonentzako egoitza-tokiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak honako galdera idatzi hau egin du (11-24/PES-00323):

- Udal-aterpetxeak albo batera utzita, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako Departamentuak egoitza-izaerako zenbat plaza eskaintzen ditu, asteko egun guztietan eta 24 ordutan, bazterkeria handiko egoeran dauden pertsonentzat?

Hona Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna:

Udal-aterpetheen finantzaketa berariazkoaz gain, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak 16 postu eskaintzen ditu Alaitz Egoitzan, eta 11 postu Hogar Zoe egoitzan, beharizan soziosanitarioak izanik bazterketa-arriskuan edo -egoeran dauden pertsona etxegabeentzat.

Gainera, Nafarroako Gobernuak badauzka beste egoitza-postu batzuk edo akonpainamendu-

programak, gizarte-bazterketako arriskuan dauden gizataldeei erantzuna emateko: adingabeentzako autonomia-programetan gaur egun 84 egoitza-postu eta ingurune irekiko 77 daude, eta aurki 40 postu gehituko zaizkie (pisuetan hogeit, eta ingurune irekian hogeit).

Bestalde, 2024ko "Irabazi-asmorik gabeko entitateentzako dirulaguntzak, gizatalde zaurgarrienen gizarteratze eta gizarte-sustapenerako proiektuetarakoak" deialdiaren bitartez, 51 postu gehitzen dira, lau programarentzako dirulaguntzarekin: hiru, b) Gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonentzako egoitza-postuak modalitatean, eta bat d) prostituzioan aritzen diren pertsonen zuzendua.

Ohartaraztekoa da etxegabetasun-egoerari heltea ez dela bakarrik departamentu honen esku-mena, eta, horregatik, beste departamentu batzuetatik ere, hala nola Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentutik, jartzen dituztela eskueran egoitza-baliabideak, halako moldez non egoitza-postuetan bigarren estalduririk handiena duen erkidegoa baikara. Ildo horretan, Etxebizitzak "Housing First" etxebizitzetako 9 postu kudeatzen ditu, eta egoitza-modalitateko 40 postu, Kideak Programan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 22an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## 11-24/PES-00324. Galdera, Iruñean egoitza-tokiak handitzeko aurreikuspenari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Iruñean egoitza-tokiak handitzeko aurreikuspenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak idatziz erantzuteko honako galdera hau egin du (11-24/PES-00324): Zenbat egoitza plaza dago aurreikusita gehitzea Iruñean, Bazterkeria handiko arriskuan daudenei laguntzeko Plan Integrala onetsi baino lehen? Udalen diruarekin ala foru-komunitatearen diruarekin finantzatuko dira? Hona Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna:

Bazterkeria handiko arriskuan daudenei laguntzeko Plan Integrala Iruñeko Udalarari dagokio.

Halere, Nafarroako Gobernua Udalarekin batera ari da lanean zenbait tresna abian jartzeko eta finantzatzeko; horiei esker, plazak ugaritzeaz gain, Udalak jada dauzkanen estaldura hobetuko da.

Halatan, "ETXE BAT - UN HOGAR" Housing Led-eko programa pilotu bat garatzeko hitzarmen bat sinatu dute departamentu horren eta Iruñeko Udalak. Housing Led metodologian oinarritutako programa bat da, helburu duena etxegabetasunaren arazoari erantzutea Iruñean, etxebizitza hartuta esku-hartzearen ardatz.

Hitzarmen horren esparruan, etxerik gabeko 30 pertsona eta etxegabetasun-egoeran dauden adingabeekiko 5 familia artatuko dira. Hitzarmen horren bidez, esku-hartze sozialeko profesionalak lagun-egite trinkoa eskainiko diete larrialdietarako udal-etxebizitzetan jada dauden 20 familia-unitateri, gizarteratzea etxebizitzaren bidez lantzeko.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 22an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## 11-24/PES-00325. Galdera, ibilgailu elektrikoak eta hibrido entxufagarriak erosteko laguntzak abian jartzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak ibilgailu elektrikoak eta hibrido entxufagarriak erosteko laguntzak abian jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera idatzia egin du ibilgailu elektrikoak eta hibrido entxufagarriak erosteko laguntzak abian jartzeari buruz (11-24/PES-00325). Hona Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariaren erantzuna:

1. Kontuan hartuta Moves III Planeko zuzeneko laguntzak 2024ko uztailaren 31n bukatuko direla, Nafarroako Gobernuak gogoan hartu al du laguntzak ematea horretarako Nafarroako aurrekontu orokorretako funts berekiekin, baldin eta ez bada beste Moves plan bat ezartzen?

Energiaren, I+G+b Enpresen eta Ekintzailetzaren zuzendari nagusiaren uztailaren 3ko 189E/2024 Ebazpenaren bidez, 2024ko abenduaren 31ra arte luzatu zen MOVES III Programaren deialdiaren babesean eskaerak aurkezteko epea. Beraz, une honetan ez da aurreikusten neurri gehigarririk abian jartzea funts propioekin.

2. Nafarroako Gobernuak ba al dauka balioespenik zuzeneko laguntza horiek eskatu eta halakorik gabe gera daitezkeen eta indarrean den

zerga-kenkaria soilik balia dezaketen eskatzaileen kopurua dela-eta?

Estatuak eskaerak aurkezteko emandako epea luzatzeak aukera ematen die autonomia-erkidegoei funtsak handitzea berriz eska dezaten, aurrekonturik ez izateagatik erantzun ez zaizkien eskaerei erantzun ahal izateko. Zenbatespen hori irailean igorriko zaio Estatuari, eta, horren bidez, kontuan hartuko dira bai gaur egun bete gabe dauden eskaerak, bai programaren indarraldi berrira arte (2024/12/31) jasotzen diren eskaera berrien aurreikuspenak.

3. Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik era horretako ibilgailuak erosteagatik dagoen zerga-kenkaria mantentzeko?

Ibilgailu elektrikoak erosteagatik kenkari fiskala FIZLren 62.13 artikuluan eta FIZLren 64.8 artikuluan araututa dago, eta ez dago zehaztuta noiz amaituko den.

4. Hala baldin bada, Nafarroako Gobernuak aintzat hartzen al du zerga-kenkaria hobetzeko aukera, baldin eta ez bada erosketarako zuzeneko laguntzarik ezartzen?

Nafarroako Gobernua indarrean dauden neurri fiskalak aztertzen eta berrikusten ari da, bai eta tributu neurriei buruzko hurrengo legean sar daitezkeen ekimenak ere. Nolanahi ere, gaineratu behar da Nafarroa dela, gaur egun, ibilgailu elektrikoak erosteagatik kenkari fiskal handiena duen autonomia-erkidegoa.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 19an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

## **11-24/PES-00326. Galdera, Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean aurreikusten diren zerbitzu-kartei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak Nafarroako Kultur Eskubideei buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legean aurreikusten diren zerbitzu-kartei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Trigo Oubiña jaunak Nafarroako Kultur Eskubideei

buruzko urtarrilaren 15eko 1/2019 Foru Legea ezartzen diren zerbitzu-gutunei buruz egin duen galdera dela-eta (11-24 PES-00326), honako hau da Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak emandako erantzuna:

Culturana Navarra.es webgunean kontsulta daiteke eskatu den informazioa; hurrengo esteka honetan, hain zuzen ere:

<https://www.culturana Navarra.es/eu/memoriak-zerbitzu-karta>

Hori da jakinarazi ahal dudana, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 16an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

## **11-24/PES-00327. Galdera, Europako Next Generation SEM funtsek 2024ko maiatzaren amaieran izandako betetze-mailari buruzko datuak argitaratzeari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Europako Next Generation SEM funtsek 2024ko maiatzaren amaieran izandako betetze-mailari buruzko datuak argitaratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko ekainaren 21eko 89. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko uztailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera idatzia egin du, Euro-

pako Next Generation SEM funtsek 2024ko maiatzaren amaieran izandako betetze-mailari buruzko datuak argitaratzeari buruzko informazioa eskatzeko (11-24/PES-327). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Ekonomia-Next Generation Zuzendaritza Nagusiak Europako Next Generation SEM funtsen betetze-mailari buruz Gobernu Irekian eskaintzen dituen datuek Nafarroako Gobernuoko departamentu guztiak barne hartzen dituzte.

Departamentuen kontabilitatea informazioak barne hartzen duen hilabetearen osteko hilaren 11n ixten da, salbu eta urtarrilean, urtekoa ere ixten baita orduan.

Hortaz, hurrengo hilabetearen 11n has daiteke jasotzen departamentuei buruzko informazio globala eta eskain daiteke behin betiko gardentasuna.

Halere, logikoa denez, departamentuek lehenagotik ezagutzen dute bakoitzari buruzko informazioa, kontabilitate globalerako eman beharra daukatelako. Beraz, lehenago eman dezakete euri buruzko informazioa baldin eta informazioa taxaturik badute, ez baitago hori eragozten duen lege-agindurik.

Hori bai, departamentu guztietan gardentasunez ematen den informazioak zorrotza izan behar du, eta ongi landua. Hortaz, kontabilitatea ixten denean (eta ez lehenago) harmonizatu egiten da, kontrastatu egiten da, eta azkar argitaratzeko jasotzen da. Kontabilitatearen azken helburua da lehenetsi behar dena: egoera ekonomiko-finantzarioa zehazki islatzea.

Horrenbestez, kontabilitatea itxi baino lehen argitaratuko balitz, nekez islatuko luke informazioaren egoera erreala, egun hori iritsi arte aldatu egin baitaiteke.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko uztailaren 19an

Lehendakariorde eta Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix M<sup>a</sup> Taberna Monzón

(ordezkari gisa, Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariaren ekainaren 25eko 15/2024 Foru Dekretuaren arabera)



